

Kutxabank Plus 6, Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENSIO FONDOEI BURUZKO ARGIBIDE OROKORRAK.

Pentsio Plan eta Fondoaren arautegiaren arabera, inbertsio-politikaren oinarrien aitortzen ulerkerria idatzita agertuko da.

Inbertsio-politika edozein izanda ere, Pentsio Fondoetan egindako inbertsioak, merkatuaren gorabeheren eta baloreetan inbertituz dakartzan beste arrisku batzuen mendeak dira. Beraz, partaideak jakin behar du partaidetzen likidazio-balioak gora nahiz behera egin dezakeela.

Fondoaren zorroaren osaera zehatza sei hileko txostenetan aztertu ahal da.

II) PENSIO FONDOA IDENTIFIKATZEKO DATUAK.

Sozietate kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.

Sozietate gordailuzaina: CECABANK, S.A.

III) PENSIO FONDOEN INBERTSIO POLITIKA

a) Fondoaren ezaugarriak

Fondoa Errenta Finkoko fondoa da.

b) Kudeaketaren helburuak

Fondoaren inbertsio-politika partaidetza bakoitzerako balio jakin bat lortzera bideratuta dago, alde aurretik ezarritako denbora-tarte batean. Edonola ere, partaideak eskuratuko duen errentagarritasuna, partaidetza bakoitza harpidetu duen balio likidagarriaren arabera izango da.

c) Inbertsioak aukeratu eta banatzeko irizpideak

Fondoak bere ondare gehiena izaera publiko zein pribatua duten errenta finkoko tituluetan inbertituko du. Gainera, aitortutako kaudimena duten Europar Batasuneko jaulkitzaileek igorritakoak izan behar dute.

Fondoaren ondarea osatzen duten errenta finkoko tituluek Europar Batasuneko herrialdeetako merkatu antolatuetan kotizatuko dute.

Errenta finkoko aktiboek kokapen estrategikoa egingo da, kudeaketaren helburuarekin bat datorrena.

Hala dagokionean eta ahal den guztietan, Fondoak bere ondarearen zati bat hurrengo eragileek jaulkitako baloreetan inbertituko du: Europar Batasuneko Estatuak; Autonomia Erkidegoak; Espainia kide duten Nazioarteko Erakundeak; eta ELGAko beste Estatu kideak.

d) Inbertsioei lotutako arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko metodoak

Errenta finkoko zorroa, gutxienez, investment grade delako ratinga daukaten erakundeek jaulkitako tituluez osatuta egongo da, edo Espainako Erresumarena, azken hau txikiagoa izanez gero. Edonola ere, dagokion aktiboa erosi eta gero ratingean izandako aldaketek ez dute ekarriko hura saldu beharra.

Horrez gain, ezarritakoa baino rating txikiagoa duten tituluak eskuratu daitezke, betiere, kaudimenari buruzko baldintzen arautegia betetzen bada, indarreko mugekin bat badator eta horrelako aktiboen azken posizioak Planaren zorroaren baino gehiago osatzen ez badu.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak fondoaren inbertsioen ratinga nahiz arrisku diferentzialen edo spread deiturikoen bilakaera erregulartasunez kontrolatuko ditu.

Errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak arriskua dakar interes-tasei dagokienez.

e) Kutxabank Plus 6, Pentsio Planaren partaideentzat Aurreikusitako urteko Errentagarritasun-helburua

Kutxabank Plus 6 Pentsio Planaren bermatu gabeko errentagarritasunaren helburua honako inbertsio-politika garatzearen ondorioz lortutakoa da: epe horren hasieran (2014ko irailaren 26an) partaidetzak zuen balioaren gaineko %17,77ko (UTB %2,25) irabazia lortzea epearen amaieran (2022ko urtarrilaren 31n).

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio-printzipioen adierazpen hau 2020ko martxoaren 20tik aurrera aplikatuko da.